




- PAPER GARBITZAILEA

→ IDEIAREN DESKRIBAPENA:

Denok dakigunez, gaur egun papera erabili ondoren, papera hori dagokion zaborretara botatzen dugu, berriz paper hori lantegietara joateko eta bertan erabilitako papera txikituz, berriro erabili dezagun. Honela, zuhaitzen mozketen kopurua murriztu egin da. Guk egoera edota pausu hauei begiratu ondoren, galdetu diogu geure buruari ea zergatik paper hori berriz berrerabil ezin daitekeen. Askok pentsatuko duzue, edo behintzat erantzungo duzue esanez, paper hori jada erabilia dagoela, bertan idatzi dogunagatik; hala ere, guk pentsatu dugu paper hori behin eta berriro erabiltzea apurtu edota zaharkitu arte.

Askok pentsatuko duzue hau ezinezkoa dela, paper bat aldi baten baino ezin daitekeelako erabili. Horregatik, guk imprimagailu antzeko zurgagailu bat asmatu dugu. Honen eginkizuna da, behin erabilitako paper hori, makina honetatik zehar igarotzea eta bertan idatzita zegoena borratzea edota desagaertzea. Honi esker, paper berdina erabili ahalko genuke mila aldiz eta zuhaitzen mozketen kopurua murriztu egingo litzateke. Halaber, aipatzekoa da, makina hau gai dela edozein boligrafoz, arkatzez... idatzta egondako hori ezabatzeko eta erabilitako paper hori zuriz uzteko hurrengo batean berriz erabiltzeko.







IJAO (Izaro, Jon Kevin, Anartz, Oihane)

Guk sortutako produktu hau erabilgarria da lantegi guztientzat baita lantegian lan egiten duten langile guztientzat ere; hau da, gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat erabilgarria da, eskubide berberak dituztelako biek produktu hau erabiltzeko.

ORGANIGRAMA.





GURE ENPRESAREN AMIA:

<p style="text-align: center;"><u>AUKERAK</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ingurugiroa mantentzeko kezka. 2. Piezak berrerabiltzeko kezka. 3. Gizarteak lana erraztea nahi du aparailu elektronikoen erabilerarekin . 	<p style="text-align: center;"><u>MEHATXUAK:</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Gerraren (Ukrania vs Errusia) ondorioz, beharrezkoak diren piezak ezin daitezke egileetaraino heldu. 2. Piezak ez berrerabiltzea. (Produktua txarto ateraz gero lehenengo saiakeretan) 3. Garestitasuna. (Produktua garestia denez edonork ezin dezake erosi)
<p style="text-align: center;"><u>INDARGUNEAK:</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Gazteak eta lan egiteko gogoak. (gazteak izatean, lan egiteko gogoekin iritsi garela) 2. Ordenagailuekin ibiltzeko trebetasuna eta talde bikaina osatzea. (bakoitzak bere ikasketak egin dituenek produktu hau azaltzeko edota aztertzeko) 3. Hizkuntzen aniztasuna. (ikasketak ikasi bitartean hainbat hizkuntza ikasi ditugula eta gai garela gainontzekoekin beste hizkuntzaren batean harremanetan jartzeko) 4. Paperaren murrizpena. 	<p style="text-align: center;"><u>AHULEZIAK:</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Esperientziarik ez. (Gazteak garenez ez daukagu esperientziarik) 2. Kontsumoa anitza. (Gure produktuak elektrizitate ugari erabiltzen duela) 3. Matxura (matxura edukiz gero, matxurak diru asko sor dezakeela)

GJH → ODS



Hau garapen iraunkorreko helburuak izenekoak garatu dituen ideiak dira eta berak eginiko taula bat da. Gure lantegiak, honek proposatutako ideiak ugari garatu edota erabili ditugu gure produktuak helburu hauek betetzeko baina arauak hautsi gabe. Honekin batera esan daiteke helburu guzti hauetatik guztiak ez ditugula eredutzat hartu, baina hainbat hartu ditugu hala nola: 8. helburua (lan txukuna eta hazkunde ekonomikoa), 12. helburua (ekoizpen eta kontsumo arduratsuak), 13. helburua (klimaren aldeko ekintza) eta 15. helburua (ekosistema terretreen bizitza).

Gure ustez ideia hauek hartu ditugu, 8. helburua hartu dugu eredutzat, gure ustez, lan txukun bat eginez gero, honek hazkunde ekonomiko handia izan dezakeelako, gure produktua salmentan jartzean. Bestalde 12. helburua ere eredutzat hartu dugu, honek ekoizpen handia izan dezakeelako eta hau erabiltzean, kontsumoa ere oso arduratsua da, birziklapena bultzatzen delako adibidiez. Halaber, 13. helburua ere eredutzat hartu dugu, gure produktu hau ekoizti dugunean, klimari eragin dizkion ondorioen berri izan duelako eta klimarentzat kaltegarria izan ez dadin pentsatu dugulako. Bukatzeko, 15. helburua ere eredutzat hartu dugu, lurreko edota terrestrea den ekosistema hori zaindu nahi dugulako eta horrek izan dezakeen arazoetan ere pentsatu dugulako. Arazoak ekidinez eta nola ez kutsadura ere ekidinez.